

70/2021 FORU AGINDUA, uztailaren 29 (e)koa, Hezkuntzako kontseilariarena, Hezkuntzako eta Kulturako kontseilariaren apirilaren 25eko 161/2001 Foru Agindua zati batean aldatzeko prozedura abiarazten duena.

Hezkuntzako eta Kulturako kontseilariaren apirilaren 25eko 161/2001 Foru Aginduaren bidez, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileen lanbide prestakuntza eta hobekuntza garatzen dira A mailako edo taldeko irakaskuntza lanpostuetan (2001eko 69. NAO, ekainaren 6koa).

Foru agindu hori indarrean egon den aldian, agerian jarri da I., II. eta III. eranskinak berrikusi behar direla, A maila edo taldeko irakaskuntza lanpostuei dagokienez, prestakuntzarako zerbitzu berezietako egoeraren adierazpenaren bidez bete daitezkeen lanpostuetan aritzeko behar diren profilak txertatzeko eta titulazio akademikoak eguneratzeko.

Hori guztia Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 133. artikuluan xedatutakoarekin bat.

AGINTZEN DUT:

1.- Hezkuntzako eta Kulturako kontseilariaren apirilaren 25eko 161/2001 Foru Agindua zati batean aldatzeko prozedura abiaraztea. Foru agindu horren bidez, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileen lanbide prestakuntza eta hobekuntza garatzen dira A mailako edo taldeko irakaskuntza lanpostuetan (2001eko 69. NAO, ekainaren 6koa).

2.- Langileen Araubide Juridikoaren Zerbitzua izendatzea hura prestatu eta izapidetzeko ardura duen organo.

3.- Foru agindu hau igortzea Hezkuntza Zuzendaritza Nagusira, Lanbide Heziketaren Zuzendaritza Nagusira, Hezkuntza Baliabideen Zuzendaritza Nagusira, Idazkaritza Tekniko Nagusira eta Hezkuntza Departamentuko Langileen Araubide Juridikoaren Zerbitzura, behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2021eko uztailaren 29 (e) (a)n.

HEZKUNTZAKO KONTSEILARIA

Carlos Gimeno Gurpegui